

BESTELAKO XEDAPENAK

ELANKIDETZA-LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA

3147

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 3koa, eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita garapenerako lankidetzaren kargura ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak emateko 2025eko deialdia.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuak garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen ditu, eta bi jardun-tipologia bereizten ditu. Alde batetik, ekintza humanitarioko proiektuak, krisi humanitarioek ukitutako pertsonak babesteko direnak, eta bestetik, ekintza humanitarioko estrategiak, epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak direnak, zeinek, aipatutako babes-ekintzez gain, erakunde humanitarioak sendotzeko eta euskal herritarrak sentsibilizatzeko bestelako ekintzak ere jasotzen baitituzte.

2025eko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez, 2025eko ekitaldirako ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak deitzen dira (EHAA, 52. zk., martxoaren 17koa).

Ikusirik deialdiaren 7. oinarriaren bidez hartarako izendatutako balorazio-batzordeak laguntzak emateko egindako proposamena, eta eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Koordinazio Zerbitzu Teknikoak laguntza-eskabideen balorazioa eta azterketa teknikoa eginik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei ematea Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariaren 2025eko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak, eranskinean bertan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean ageri den entitateari laguntza-eskaera ukatzea, funtsak agortu direlako.

Hirugarrena.– III. eranskinean ageri diren entitateen laguntza-eskabideak baztertzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Bosgarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako Lehendakartzari hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua aurkeztu eta hiru hilabeteen ebazpena eman ez bada, errekurtsua ezetsizat jo ahal izango da, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzibidea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 3a.

eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER CORTÉS FERNÁNDEZ.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Eskatzailea	Izenburua	Herraldea	Puntuazioa	Laguntza
EHE-2025BA/0001	Farmacéuticos Mundi	Estrategia humanitaria indarkeriazko testuinguruetan Tigrayn eta Amharan: sexu-indarkeriari eta generoan oinarritutako indarkeriari aurre egiteko osasuna, eskubideak eta erresilientzia generoaren eta lotura hirukoitzaren ikuspegitik.	Etiopia	71	800.000,00 €
EHE-2025BA/0008	Mundubat fundazioa Bakearen, Armagabetzear en eta Askatasunaren aldeko Mugimendua	Maliko Bamako barrutian lekualdatu direnen bizi-baldintzak hobetzea.	Mali	67	799.999,45 €
EHE-2025BA/0005	Albon fundazioa	Oinarri humanitarioko erantzun osoa eta artikulatua Kolonbian, Panaman eta Costa Rican halabeharrez lekualdatu behar izan direnentzako, ikuspegi bereziaz eta intersektionalaz	Kolonia	66	799.999,14 €
EHE-2025BA/0002	Bakerako Lankidetzaren Batzarra	Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen arabera okupatuta dagoen Nabluseko hego-ekialdeko herritarren eskubideei eta duintasunari babes integrala emateko lotura lokalizatua.	Palestinako Estatuak	62	800.000,00 €
EHE-2025BA/0006	Comité Español de la UNRWA elkarteak	Sirian dauden Palestinako emakume errefuxiatuen kalteberatasuna arintzeko ahalduntze-estrategiak.	Siria	61	800.000,00 €

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK FUNTSAK AGORTUTA EGOTEAGATIK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herraldea	Puntuak
EHE-2025BA/0007	España con ACNUR elkarte	Genero- eta sexu-indarkeriari aurre egitea eta giza eskubideak eta Ugandako errefuxiatuen eta tokiko komunitateak defendatzea, euskal gazteen bitartez.	Uganda	58
EHE-2025BA/0003	Espainiako Gurutze Gorria	Kaleheko eta Bukavuko (Sud-Kivu) krisi humanitarioak kaltetutako pertsonen premia humanitarioei erantzutea genero-ikuspegitik.	Kongoko Errepublika Demokratikoa	57

2025eko uztailaren 17a, osteguna

III. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKAERAK

Espedientea	Entitate eskatzailea	Izenburua	Herraldea	Arrazoia
EHE-2025BA/0004	Ayuda en Acción fundazioa	Migratzaileen babesa eta arreta integrala indartzea, generoan oinarritutako indarkerian, gizarte-kohesioan eta giza eskubideen defentsan arreta jarrita, Guatemala-Mexikorekin koordinatuta.	Mexiko	Ez du betetzen 90/2019 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako betekizuna; hain zuzen ere, gutxienez 50 puntu lortzea.